

- **Elkarteak**

Gure oinarrizko aliantza enpresa sortuko duten bazkideen artean izango da eta bakoitzak funtsezko rol bat izango du:

- **Amaiak** kudeatzeko gaitasuna izango du.
- **Ibaik** salmentarako abilitate ona du.
- **Ainhoak** bezeroekin pazientzia handia du, eta horrek bezeroekin harreman ona izaten lagunduko luke.
- **Alainek** finantziazioarekin lagunduko luke, zenbakiak ondo ematen baitzaizkio.

Mugikorretarako aplikazio bat egingo dugunez, diru kantitate gehiena aplikazioaren sorreran inbertituko dugu. Hori dela eta, ez ditugu inolako aliantza estrategikorik beharko.

Aldiz, gure proiektuaren garapenean zein publizitatea egiteko momentuan hainbat laguntza beharko ditugu, hasteko, programatzaile bat, aplikazioa, web orrialdea eta haren kodea sortzeko, eta, eremu berezi bat non bezeroek dituzten zalantzak, galderak edo ideiak zabaltzeko. Eta, beste aldetik web orriko diseinatzailearen laguntza beharko dugu.



Beste alde batetik, udaletxeekin eta hainbeste supermerkatuekin zigulak sinatuko ditugu erositako produktuak ondo birziklatzean direla ziurtatzeko eta hondakin kaltegarriak murrizteko, horrela gure enpresa hedatuko da eta enpresek egonkortasuna emango digu. Aplikazioa Play Storen sartuko dugu, plataforma horrek bisualizazio handia duenez gure produktua bezero askori heldu daiteke, horregatik haiekin kontratu/akordio bat egingo dugu.

